



3 UDALA

“Premiazko hainbat inbertsio” egiteko kreditu aldaketa

Udalak 1.834.655,62 euro bideratuko ditu haren iritziz “premiakoak” diren hainbat lan eta inbertsio egitera. Kreditu aldaketa espediente bat prestatu du udal gobernuak, datozen hilabeteetan egin nahi dituzten egitasmoak jasoz. Ezohiko udalbatzarrean onartu zuten txostena korporazioko kideek, astelehenean. Hamar aldeko bozka eta hiru abstentzio jaso zituen proposamenak.

5 KULTURA

Lasarte-Oria eta Torredembarra: bi herri, sentimendu bat

Elkartasun jaialdia egingo dute bi herriek datorren aste-asteburuan, Lasarte-Oria. Kultura eta gastronomia ardatz izango dituen egitaraua prestatu du herritar talde batek, Tarragonako Torredembarra herritik etorriko diren 250 lagun ingururi ongi etorria egiteko. Hamalau urte atzera sortu zen bi herrietako koadrilen arteko erlazioa. Jauzi handiena, ordea, pasa den urtean eman zuten: 50 bat lasarteoriatar joan ziren Tarragona aldera, herria ezagutzera. Aurtengoan alderantzizkoa izango da bidea.



Gazteak, kirola eta euskara. Hiru horiek dira aurtengo Udaltop jardunaldien aztergai eta mintzagai nagusiak. Kontzeptu horien bueltan ibili ziren atzokoan hainbat hizlari, eta ariketa berbera egingo dute gaur goizean zehar ere: euskararekiko jarrera eta jokaera, kirola oinarritik euskaraz egin beharra, Eskola Kirola egitasmoaren araubidea eta funtsa... Urtero lez, mamitsu izaten ari da Udaltop.

K irola D eredu, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko? da aurtengo jardunaldien leloa, atzo eta gaur artean burutzen ari direnena. Ibon Gaztañazpi kazetari oriotarra ari da aurkezle lanetan. Euskal Herri osoko 190 bat pertsona –hizlari, irakasle, kirol teknikari, etab.– ari dira parte hartzen topaketan.

Arestian formulatutako galderak ordezkari politikoek erantzun zituzten aurrena, atzo goizean: Jon Antxordoki Lasarte-Oriako Euskara zinegotzia, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Markel Olano Gipuzkoako Ahdun Nagusiak, hain justu. Hori baino lehen, Jesus Zaballo alkateak egin zuen sarrera.

“Udalean lan egiten dugunontzat, garrantzitsua eta premiakoa da eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izatea”, zehaztu zuen Antxordokik. Baztarrikak gogora ekarri zuen eskolaz kanpoko jardueren artean kirolarekin lotutakoak direla gaztetxoek gehien praktikatzen dituztenak, eta aisial-

Gazteak, kirola eta euskara mintzagai Gaur bukatuko dira aurtengo Udaltop jardunaldiak




Aurten antolatutako hitzaldi, mahai-inguru eta abarretan hausnarketa oso interesgarriak ari dira plazaratzen hizlariak.

diari “astindua” eman behar zaiola. Olanoren hitzetan, “oso enfoke berezia” dauka Gipuzkoako Eskola Kirolak: “Eliteko kirol taldeek ez dute baldintzatzen, egitasmoa ez doa bideratuta kirol jakin bat egitera soilik. Horren erakusgarri da, kirolari olinpiko gipuzkoarren portzentaje altua”.

Hausnarketa ugari

Pello Jauregi EHUKo irakasleari egindako elkarrizketa batek hartu zion lekukoa hasiera ekitaldiari. Hainbat gogoeta plazaratu zituen Jauregik. “Neurri sozialak eta legalak hartu behar dira euskara sustatze aldera; ezin da dena utzi norbanakoen borondate eta motibazioaren baitan. Indarra du azken horrek, jakina, baina ibilbide motza”, adierazi zuen.

Entrenatzaileen formakuntza izan zuen hizpide Dorleta Ugalde Jaurlaritzako kirol-teknikariak. Onartu zuen “oso mugatua” dela entrenatzaile-



Arduradun politikoek ireki zituzten atzo aurtengo Udaltop jardunaldiak.

leen euskarazko formakuntza, eta erronka hori hobetzea dela erronka. ‘16 urtez azpiko kirola: antolamendua eta araubidea EAEn eta Nafarroan’ hitzaldia eskaini zuen, Nafarroako Gobernuak sustatu buru Andoni Irujorekin.

Koikili Lertxundi Eusport enpresako zuzendaria aritu zen gero. Kirol irakaskuntza

formalaz aritu zen, besteak beste. “Kirol irakaskuntza euskaraz eskaintzeko, itxaroten ari bagara ikasleek eskatzea, modu batean eurei ari gara egozten ardura”, aipatu zuen.

Luis Mari Zulaika EHUKo irakasleak nabarmendu zuen aisialdira bideratua egon behar duela Eskola Kirola egitasmoak, ez eliteko kirolera.

Begirale bezala lan egingo zenuke udaran?

Begirale lan-poltsa osatzen ari gara. 18 urte baina gehiago badituzu eta euskara maila altua, bidali zure kurrikuluma apirilaren 25a baina lehen aisia@ttakun.eus helbidera edota Ttakuneko bulegora.

*Begirale titulua eta esperientzia kontutan hartuko dira.



Josue Igeltseritza S.L.

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD



38-60 neurriak

Neure kabuz



Gorka Alvarez

Hezi,hazi,bizi eta denon artean ikasi

Txiki txikitatik guztiok izan dugu gure alboan irakasle bat. Bat behinik behin; bi, hiru, hamar edo ehun ez badira. Hezkuntza aratuak ezartzen dizkigun irakasleez gain, bizitzan zehar, gure inguruan etengabea da ezagutzen ditugun eta irakasle rola hartzen duten pertsonen kopurua. Haurraren, gaztearen edota helduaren ibilbidean, irakaskuntza prozesua etenik gabekoa da. Askotan ez gara konturatzen, pertsonak, erreferenteen bidez funtzionatzen dugula gizarteko arlo guztietan. Bai, oso polita da esatea nik nire bidea egingo dut, gure gure estiloa daukagu edo nik ez dut inongo erreferentzia edo eredurik. Norbanako edo kolektibo bakoitzak badu ispilu bat non askotan begiratzen den eta askotan inkontzienteki bada ere, uste baino gehiago begiratzen dioguna.

Irakaskuntza aratuak, etengabeko aldaketak jasan ditu denboran zehar eta aldaketa hauek normalizat har daitezke edozein sistema edo prozesuk denboran zehar izaten baitituzte aldaketak, Euskal Herrian, gure sistema propioa eraikitze aldera inoizko kontzientzia handiena nabari dut hezkuntza kolektiboan. Gainera erreferenteak denok izanda, inplikatur gero, guztion artean hezkuntza sistema euskaldun, sortzaile, lehiakor eta batik bat hezitzaile bat eraikitze bidea errazago izango da. Askotan, ispiluan ageri dena gure parean dugun, laguna, gurasoa edo bizilaguna izango dela konturatzea eta gizarte baten eraikuntza etengabekoan figura hauek ezinbestekoak direla konturatzea beharrezkoa izango da. Hori lortuz gero, hezkuntza kolektibo eta sozial bat bideratu, sortu eta garatuko dugu gaurko sistema aratuaren sostengu izan daitekeena edota nork daki agian etorkizunean hezkuntza modu berri baterantzako bidea eraikitzea lortuko ote dugun hezkuntzaren pisu handiena irakasleen profesionalen gainean utzi gabe eta guztion artean gizartea heziz eta haziz.

Zorion agurrak




Eneko

Zorionak Eneko! 11 urte! Ondo pasa maitia eta muxu erraldoi bat familiaren partez.




Olaia

Zorionak pitu zure 9. urtebetetzean. Oso ondo pasa eta muxu asko familia osoaren partetik. Maite zaitugu!!!



Mitxel, Maia eta June

Familiaren partetik zorionak eta muxu handi bat!!!



Aitor

Zorionak Aitor!!! Hamar aldiz belarririk tira, aiton-amonen hamar muxurekin!!



Maialen

Zorionak polita!!! 11 txokolatezko muxu!!! Aiton-amon eta familien partetik, ondo pasa zure urtebetetzean bihotza.



Mainer

Zorionak Mainer! 2 muxu potolo aitona eta amonaren partetik, amonaren partetik, ondo pasa zure potxolita. Maite zaitugu!



Eider

Zorionak printzesa zure bostgarren urtebetetzean. Oso ondo pasa etxekoan partetik. 5 muxu potolo.



Ander

Zorionak Ander!!! Etxeko artistari 9 muxu handi!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

• Garaje itxia salgai Zumaburun. Plaza bat eta erdikoa da: 22,275 metro karratu ditu. Harremanetarako, 688 823 387.

Salerosketa

• Motxila handi bat, bi lo-zaku eta esterilla bat salgai, egoera onean. Salneurria: 40 euro. 943 36 00 42/688 65 91 65.
• Emaztegia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943 370 092.

Lan-eskaria

• Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna moduan edo gauzez. Harremanetarako, 688 812 344.
• Barneko edo kanpoko langile bezala egingo nuke lan, garbiketan edota zaintzan. Harremanetarako, 617 76 14 23

• Barneko langile bezala aritu nahiko nuke, zaharrak edota umeak zaintzen. Norma 620 400 181
• Emakumea eskaintzen da haurrak zein adineko pertsonak zaintzeko, gauzez edota aste-buruetan. 675 82 02 06.
• Emakumea eskaintzen da etxeko lanak edo zaintza lanetarako. Interna edo externa moduan. Esperientziaduna. 636 414 520.
• Neska eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Esperientzia du eta gomendiozko gutuna. 622 831 424.
• Externa edo interna moduan lan egiteko pertsona eskaintzen da, baita haurrak zaintzeko ere. 634 27 81 98.
• Emakume bat eskaintzen da externa moduan lan egiteko, adineko pertsonak zaintzeko edota etxe zein portalak garbitzeko. 680 414 963.

• Externa edo interna moduan lan egiteko pertsona eskaintzen da, baita haurrak zaintzeko ere. 612 550 134.
• Etxeko lanak egiteko pertsona bat eskaintzen da: portalen garbiketa, adineko pertsonak zaintzea, etab. 647 198 629.
• Emakumea eritexean gauak pasa, nagusiak-haurrak zaindu edota garbiketa lanetan aritzeko prest, orduka edo interna. Erreferentzia onak 619 803 199.

Bestelakoak

• Alokairuan pisua bilatzen dut Lasarte-Orian. 2 logelakoa eta hilean 550 eta 600 euro artekoa. 673 381 470.
• Arazo ekonomikoak dituzten familietan eskola indartzeko klaseak ematen ditut. Ingeniaria naiz eta dohainik egiten dut. 676 145 135.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

• Malen Nogales Garcia de Andoin, apirilaren 14an.

Heriotzak

• David Mateos Garcia, apirilaren 17an, 77 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 22 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 23 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 24 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 25 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 26 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 27 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 28 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Ostirala, 29 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 30 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 01 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 02 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Kreditu aldaketa, onartua

“Premiazkoak” diren hainbat inbertsio egingo ditu Udalak

Lasarte-Oriako Udalak 1.834.655,62 euro bideratuko ditu “2016a amaitu aurretik premiazkoak diren hainbat lan” egitera. 2015eko kontu orokorrak egin ostean, altxortegian soberakinak geratu dira, eta diru horren zati handi bat erabiliko du Udalak zeregin horietarako. Hiru hilabeteren buruan “dena martxan jartzea” espero du Jesus Zaballos alkateak.



Jesus Zaballos alkateak azaldu zituen kreditu aldaketa espedientearen xehetasunak.

TXINTXARRI

Ezohiko udalbatzarra egin dute korporazioko kideek, udal gobernuaren kreditu aldaketaren espediente proposamena eztabaidatzeko. Astelehen goizean onartu zuten, hamar aldeko bozka (PSE-EE, EA) eta hiru abstentziorekin (EH BIlldu eta Lasarte-Oriak Ahal Du).

Jesus Zaballos alkatearen hitzetan, 2015. urteko likidazioa “oso positiboa” izan da: “Gastuak bost puntu igo dira, %82,14raino, 2014arekin alderatuta; diru-sarrerak, berriz, %79,47tik %92,27ra arte. Diru-sarreraren eraginkortasunak 2.816.530,77 euroko soberakinak sortu ditu”.

Ia hiru milioi horietatik 1.834.655,62 euro bideratuko ditu Udalak, haren iritziz “premiazkoak” diren hainbat inbertsio egitera. Gainontzekoa “gorde” egingo du, zerbait “oso urgentea” sortuko

balitz, “berehala” erantzun ahal izateko.

Pertsonal kontratazioak, berritze-lanak...

Lan eta egitasmo ugari jaso ditu Udalak kreditu aldaketa txostenean. Zaballosen aburuz, “premiazkoena” arkitekto tekniko bat urtebeterako kontratatzea da. “Udalean funtzio hori betetzen duen pertsonak hiru hilabete daramatza bajaran, eta hainbat proiektu aurrera atera behar dira, estankatu ez daitezten”, esan zuen alkateak astelehenean. 34.531,80 euro bideratuko dira horretara.

Zerbitzu publiko eta hirigintza alorrean herritarren “eskaera ugari” jaso dituztela aipatu zuen alkateak, eta zerbait inbertsio egingo dituztela aurreratu. Esaterako, herriko hainbat egoitzatako leihoak berrituko ditu, 550.000 euro

bideratuta. 323.000 Garai-koetxea-Landaberri ikastetxe-koetakoentzat izango dira; Biyak Bat adineko pertsonen elkartekoentzat, 177.500; eta 50.000 Andre Joakina Enea haurtzaindegikoetarakoentzat.

Oria auzoan zebra-bideak jarriko ditu. 60.500 euro aurreikusten dira lanak burutzeko. “Ez da soilik marra batzuk margotzea; semaforoak ere jarriko dira, botoi bidezkoak”.

Haurren parkeetako jolasak aldatzeko 100.000 euro aurreikusi dituzte; ezinduen jarduerara egokitutakoengatik aldatuko dituzte oraingoak.

Kirol esparruan, Michelin-go aldagelak inpermeabilizatu dituzte, ura ez dadin filtratu garajeetara. 40.000 euro aurreikusi dituzte.

Udalaren beraren webgunea berritzera 21.000 euro bideratuko dituzte.



LAB

Lan prekarietatearen aurkako mobilizazioak aurrera

Ekainera bitarte iragarritako mobilizazioak burutzen jarraitzen du LAB sindikatuak. Astelehenean Tajamarreko biribilgunean elkartu ziren.

Eszenatokia aldatuz doa, baina LABek egiten dituen aldarrak ez. Euskal Herriak eta batez ere Lasarte-Oriak pairatzen dituen langabezia-tasa altua eta prekarietatea salatzea dute xede ekintza horiek. Halaber, independentzia planteatzen dute arazo horien irtenbide modura.

AISIA

Zubietako Udako Txokoen izena ematea

Zubietako Guraso Elkarteak uztaila eta abuztuan zehar haur txokoak antolatuko ditu Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduak.

Egitaraua zehaztu gabe badago ere, txokoak goizetan izango dira. Haurrek lagun artean jolastu, tailerretan parte hartu, irteerak egin etab. luze bat egiteko aukera izanen dute Ttakun elkartearen gidaritzapean.

Txokoetan parte hartzeko, apirilaren 30a arte aurretiko izen emate epea zabalik dago. Interesatuak zubietatxoko@gmail.com helbidera idatzi dezakete izen emateko eskatuz. Paperean egin nahi duenak, inskripzio orriak Zubietako eskolan eskuragarri izanen ditu.

AMARAUN KLUBA

Koloreak eta tamainak lantzen

Amaraun Ludotekan ikasturteko azken ipuin kontaketa saioaz gozatu zuten HH3 eta HH4 mailako haurrak.

Irakurketari esker, koloreak eta tamainak aztertu eta hauek lantzeko ostean jokoak eta eskulanak egin zituzten. Haurrek ederki gozatu zuten.



Udal musika eskolako aurrematrikulak maiatzean

Maiatzetik aurrera 2016/2017 ikasurterako izena eman ahal izango da Udal musika eskolan.

Zehazki, hil horretako 9an irekiko da izena emateko epea. Datorren urtean Udal musika eskolan ikasi nahi dutenek 27ra arte izango dute aukera aurrematrikula egiteko Manuel Lekuona kultur etxean. Orduetgia goizeko 09:00etatik 14:00etara izango da.

Ikastaroak

Musika txoko, hizkuntza eta tresna ikastaroak 274,25 euroko kostua izango du Lasarte-Oriako erroldatutakoentzat. Beste herrietakoek

329,90 euroko matrikula ordaindu beharko dute.

Txistu edo akordeoia, abesbatza, kamara, armonia eta musika tresnako taldea ikastaroak ere egin ahalko dira 2016/2017 ikastaroan.

Musika hizkuntza tresnarekin konbinatu daiteke. Txistu edo akordeoiarekin izanez gero, 398,10 euroko kostua izango du erroldatuentzat. Bestela, 508,05ekoa lasarte-riarrentzat eta 616,60koa Lasarte-Oriatik kanpokoentzat.

Aurrematrikula egiteko garaian, matrikula osoaren %10a ordaindu beharko da. Ondoren, lehenengo ordainketan deskontatuko zaio aurreratutakoa. Ohartarazi

dutenez, eskabidea egin ostean izena ematen ez duenari ordea, ez zaio dirua itzuliko.

Matrikula egiteko epea uztailearen 4tik 22ra izango da. Plaza libreak egonez gero, irailean eman ahal izango da izena berriro.

Baldintza bereziak

Hau guztiaz gain, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) prestazio ekonomikoren bat jasotzen dutenentzat salbuespenak eta hobariak dardela jakinarazi dute.

Eusko Jaurlaritzako edo Udaleko Gazte Txartela dutenek %10eko deskontua izango dute. Familia ugariak,



berriro, %30ekoa. Unitate familiarreko bi kide edo gehiagok izena ematean ere bonifikazioak lortuko dira.

Prezioei edota Udal musi-

ka eskolari buruzko edozein gaien inguruko informazio gehiago behar izanez gero, Manuel Lekuona kultur etxe-ko bulegoetan lor daiteke.

Bi herri, sentimendu bakarra

Lasarte-Oriak eta Torredembarrak adiskidetasun jaialdia ospatuko dute datorren astean

Adiskidetasunerako asteburua izango da hurrengo astekoa. Tarragonako Torredembarra herriaren eta Lasarte-Oriaren artekoa, hain zuzen. Kultura eta gastronomia ardatz izango dituen jaialdia prestatu dute Kataluniatik etorriko diren 250 herritar ingururi ongi etorria emateko. Antolatzaileekin hitz egin dugu bi herrien arteko harremanari buruz gehiago jakite bidean.

TXINTXARRI

Lasarte-Oria eta Torredembarren arteko harremana aspalditik dator. Duela hamalau urte inguru hasi zen Mikel Eskisabel herritarrak Kataluniara egindako oporraldi batean. "Koadrilak elkar ezagutzen joan ginen, eta askotan joan gara gu hara eta haiek hona".

2015ean erlazioak jauzi handia eman zuen. 50 lasarteoriatar inguruk bidaiatu zuten Tarragona aldera. "Hasiera batean bertan zikiroa egitea zen gure intenzioa" diote antolatzaileek. Euskal gastronomia eta ohituren bitartez bi herrien arteko loturak sendotzea zen helburua.

Aurten, berriz, deia bueltan jaso dute lagun lasarteoriatarrek: "Prestatu zaitezte, aurten hara goaz eta". Erronkari eutsi diote eta dantzaz, musikaz, bertsoz eta gastronomiaz beteriko egitaraua prestatu dute.

250 torredembaratar etorriko dira eta harrera beroa egingo zaie Lasarte-Orian. Batzuk ostiralean etorriko dira –apirilaren 29an–, baina gehiengoa biharamunean iritsiko da lau autobusetan. Sasoetako gimnasioan eta Landaberri BHIko eraikinean egingo dute lo bisitarietako batzuk.

Lasarte-Oriaren txanda

"Lasarte-Oria jadanik ezaguna da Torredembarren" diote antolatzaileek. Haiek ezagutzeko txanda iritsi da orain. Gure herrian "ikusmina" sortu du egitasmoak.

Herriko zenbait taldek hartuko du parte bi egunetan egingo diren ekintzetan. Taberna eta elkarte askok ere euren laguntza eskainiko dute beharrezkoa den materiala utziz, egitasmoa ahalik eta hoberen atera dadin. "Eskerak eman nahi dizkiegu denei. Egitasmo herritarra da eta pozik gaude eragile asko tartean izateagatik".



Jaialdiaren antolakutzan parte hartu duten lasarteoriatar batzuk.

"Kultura eta gastronomia bi herri elkartzeko elementu erakargarriak izan daitezke", diote antolatzaileek. Horregatik, prestatutako ekintzak Euskal Herriko eta Kataluniako ohiturekin lotutakoak dira.

Txarangarekin, txalapartarekin eta euskal dantzekin ekingo diote jaiari larunbateko 12:00etan. Babarrun jan herrikoia egingo dute ostean. Jakinarazi dutenez, txartelak ohiko tabernetan daude salgai jadanik 12 eurotan. Aholkatu dute sarrerak erosteko azken momentura arte ez itxaroteko. Izan ere, kopuru mugatua jarriko baitute salgai eta horiek amaitzean ez baita gehiago hartzeko aukerarik egingo.

Bazkalostean bertso saioa egingo dute eta kataluniarrek oparia jasoko dute adiskide lasarteoriatarren eskutik: bereziki ekitaldi honetarako diseinatutako txapelak.

Arratsaldean dantzak hartuko du lekukoa. 17:00etan hasiko da kalejira Okendo plazatik.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, torredembarra-

rrrek egingo duten "Ball de diables" dantza bengala eta pirotekniadun ikuskizun "ederra" izango da. Halaber, 'castellers' eta beste dantza tradizional batzuk egingo dituzte. Lasarte-Oriako Oaintxe In Deu txarangak eta Rezibatukadak ere hartuko dute parte, soinuaren arteko nahasketa berezia sortuz.

Bestalde, kamisetak eta 'esteladak' ere jarri dituzte salgai. Azaldu dutenez, taberna bakoitzean neurri bateko kamisetak egongo dira soilik. Beraz, erosleek galdetu behar dute non saltzen duten euri hobekien dagokiena.

Igandeko ekintzak

Dultzaineroek diana eskainiko dute igande goizeko 10:00etatik aurrera. Eguerdian, aldiz, vermuta edango dute elikagai katalan tipikoek lagunduta. Bitartean, plaza Torredembarra musikariekin girotuko dute.

Honekin, intentsitate handiko asteburu honi amaiera emango diote. Ez dakite hurrengo bisita noiz eta nolakoa izango den, baina lotura estutzea da

helburua, eta ziur desio hori beteta etxeratuko direla.

Aldarrikapena

Festak badu atzean zerizan aldarrikatzailea. "Herri desberdinak izan arren, antzeko sentimenduak ditugu", azaldu dute antolatzaileek.

Bi herrien arteko harremanean aldarrikapen horrek indarra izan duenik ez dute ukatzen. Hala ikus daiteke jaialdirako aukeratutako goiburuan: 'Bi Herri, helburu bakarra'.

Gure Esku Dagok ere bide horretatik hartuko du parte jaialdian. Larunbat gauetan, kontzertua bukatu ondoren, kriseiluak botako dituzte zerura erabakitzeke eskubidearen alde.

Torredembarra eta Lasarte-Oriako koadrilen arteko harreman berezia irudikatzen duen bat jarri dute antolatzaileek. Duela bi urte, bertako bikote bat etorri zen Lasarte-Oriara ezkontzera. "Oso giro atsegina" sortu zela nabarmendu dute.

Halako istorio gehiago entzute bidean, manten dadila anaitasuna luzaroan.



2015ean Torredembarren izan ziren 50 lasarteoriatar inguru.

ISLANDIA

aurora borealak
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -

BIDAIA TALDEAN

irteera Lasarte-Oriatik
Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAO BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua

- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

500 lagun giza-katea osatzeko

Maiatzaren 29an, erraustegiaren aurkako giza-katea egingo da Donostian

Erraustegiaren aurkako mugimenduak ekimen handia antolatu du maiatzaren 29an. Onkologikotik Gipuzkoako Foru Aldundira doan bost kilometrotako tartea errausketaren aurkako eta osasunaren aldeko aldarriak bete nahi dute giza-kate baten bidez. Lasarte-Oriako Aire Garbiak ibilbide horretako zati bat osatu behar du.

TXINTXARRI

Maiatzaren 29an, osasunaren aldeko eta erraustegiaren kontrako giza-katea egingo da Onkologiko eta Gipuzkoako Foru Aldundi bitartean.

Ekintza erraustegiaren aurkako mugimenduak bultzatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietako errauste planta eraikitze proiektuarekin aurrera egiteko asmoa agertu baitu.

Giza-kate horretan mugimendua osatzen duten talde ezberdinetako kideak izango dira, baina katea osatu behar dituen bost kilometroak osatzeko herritarren parte hartzea ere beharrezkoa izango dela argi dute.

500 lagun

Horregatik, Lasarte-Oriako Aire Garbia taldeak lasarte-riarrek ere bere zatia izango dutela jakinarazi dute, "ez garrantzi gutxikoa, gainera". Izan ere, Easo Plaza eta Londres hotel bitarteko zatia osatu beharko baita.

Aire Garbiako kideen kontuen arabera, 500 lagun beharko dira eremu hori osa-

tzeko, eta horregatik dagoneko jende bila hasi dira.

"Antolaketa-aldeak, giza-katea ez da manifestazio bat bezalakoa; giza-kateak izena alde aurretik emateko konpromisoa eskatzen du, agindutako orduan agindutako lekuan egoteko konpromisoa. Eta konpromiso hori bete behar da, jakina, katea osatu bada, behintzat. Erronka handia da, ez bairik gabe, ez horrenbeste 500 lagun bildu behar direlako, hori ere hutsaren hurrengo ez bada ere, baizik eta alde aurretik izena emandako 500 lagun bildu behar direlako", ohartarazi dute.

Txartela

Hori dela eta, gauzak errazte aldera, Aire Garbiakoak txartelak hasi dira banatzen.

Txartel horretan pertsona jakin batek, izen-abizenez, maiatzaren 29an, 11:30ean, Easo Plazan egoteko konpromisoa hartzen du.

Txartelak bi zati ditu, bata pertsonak berak gordetzen du, "hitzordu zehatza ez ahazteko", eta bestea antolatzailerak, alde batetik, kontuak eramateko eta, bestetik,



Aire Garbia taldeko kideak eta giza-katearekin bate gingo duten hainbat herritar.

AIRE GARBIA

azken orduko aldaketarik balego komunikatu ahal izateko.

Lasarte-Oriako Aire Garbiak taldeko kideek jendea gehienbat ahoz aho "konprometituko" dutela jakitera eman dute.

Horretarako, kalean informazio-mahaiak jartzeko asmoa badute, lehenengoa apirilaren 30ean, Okendo plazan.

Haiekin posta elektronikoz ere kontaktatu daiteke: lasarteorianairegarbia@gmail.com.

Aurkezpena

Apirilaren 9an, Gipuzkoako Foru Aldundi aurrean egindako agerraldian azaldu zituz-

ten Erraustegiaren aurkako mugimenduko kideek ekimenaren nondik norakoak.

Aurkezpenean mobilizazio berezia izango dela azpimarratu zuten.

Katearen hasiera eta amaiera puntuaren zergatiak ere eskaini zituzten: "Zergatik hasi Onkologikoan? Ez dugulako han bukatu nahi. Zergatik bukatu Foru Aldundian? Bertan has daitekeelako behar baino pertsona gehiago Onkologikoan bukatzera eraman ditzakeen bidea".

Onkologikotik Foru Aldundira gutxi gorabehera 5 kilometroko ibilbidea dago. Katea osatzeko, guztira, 5.000 pertsona beharko dira.

"Pertsona bat metroko kalkulatzen badugu, 5.000. Erronka handia da".

"Gaia serioa da eta ekimena ere serioa izango da, besterik ez genuen behar. Baina ez dugu horregatik kolore ilunekin margotuko, osasunaren aldeko ekimena izango delako, eta osasuna, azken batean, alaitasuna ere badelako. Horregatik lanean ari gara maiatzaren 29an musika, emozioak eta sorpresak ere falta ez daitezen", adierazi zuten.

Hori guztiagatik, herritarrei maiatzaren 29ko giza katean parte hartzeko deia egin zieten. Lasarte-Oriako Aire Garbiak taldeak ere bat egingen du deialdiarekin.

Josu Martinezekin solasean

Iheslariak eta ihesaldi saiakerak eztabaidatu zituzten Irakurle Txokoko kideek asteartean. Josu Martinezek 'Tunelak, izarak, mozerroak eta bafleak' lanean jasotako adibideak izan zituzten oinarri, baina haratago joan ziren eta kartelari eta preso egoteari buruz hausnartu zuten Danle Sarriugarteren gidaritzapean. Besteak beste, Txokoko kide den preso Aitzol Iriondo-eren ekarpena jaso zuten.

Kasu ezagunenak -Segoviako ihesaldia edota Iñaki Pikabea 'Piti' eta Joseba Sarrionandia 'Sarri'-rena, adibidez- eta ezezagunagoak errelatatu ditu Martinezek. Edonola ere, azpimarratu zuen "hautaketa pertsonala" izan dela, eta ez dutela zertan "esanguratsuenak" izan.

Ihesaldi istorioak "erakargarriak" dira Martinezen ustez. Literaturan edota zinean gisa horretako istorio asko kontatu dira; horietako batzuk oso ezagunak. "Irakurtzea gustatuko" litzaiokeen liburua idatzi du idazle eta zinemagile bilbotarrak.

"Bilduma entziklopedikorik" egitea ez zen egilearen asmoa, jendeak "gustura" irakurriko duen kontakizuna baizik. Argitaratu zuenetik hona dei asko jaso dituela aitortu du Martinezek. Batzuk ihesaldi saiakera gehiago eza gutzen dituztela azaltzeko, eta beste batzuk beste modu batera egin zirela adierazteko.

Liburuak interesa piztu duela argi dago. Izan ere, gaiaren inguruko filmerik egingo ote duen galdetu dio-



Interesa piztu zuen ihesaldien gaiak Irakurle Txokoko kideen artean.

nik ere bada. Azaldu duenez, momentuz ez du jarraipenik idazteko edota ihesaldiei buruzko ikus-entzunerik egiteko asmorik.

Maiatzeko saioari dagokionez, Unai Villenaren 'Hauts haietatik' aztertuko dute. Idazle elgoibartarra eurekin izango dute.

Lan honekin lgartza literatur saria irabazi zuen idazleak. Drogazaletasuna eta gaixotasun mentalak jorratu ditu bertan, besteak beste.

LABURRAK.-

Realeko emakumezkoen lehen taldearekin egin du debuta Iraia Iparragirre herritarrak

Lesioak tarteko, apirilera arte itxaron behar izan du Iraia Iparragirre, Realeko emakumezkoen taldearekin debuta egiteko. Ez da izan nolana hiko: 90 minutuak jokatu zituen herritarrak pasa den astean, eskuineko hegaleko atzelari gisara, eta, gainera, garaipena erdietsi zuen taldeak, 1-2. Majo egin behar izan zuten lan Igor San Miguelek zuzendutako jokalariek, Oviedo Moderno taldearen zelaitik hiru puntuak Zubietara ekartzeko bueltan. Titay Calvok sartu zuen 0-1ekoa. Etxekoek hamar minuturen faltan berdindu zuten, eta Nahikari Garciak sartu zuen 1-2koa, partidaren hondarrean. Laugarren postuan jarraitzen du Realak, 48 punturekin.



Ipar Martxa irteera bihar Hendaiara

Ostadar SKTko Ipar Martxa alorrek txangoa antolatu du biharko. 7:50ean jarri dute hitzordua, Lasarte-Oriako tren geltokian. Ordubete barru iritsiko dira Hendaiakora. Han jaitsi eta hondartzaraino joango direla jakinarazi dute antolatzaileek. Bueltako trena 12:30ean hartuko dute.

Landaberri ikastetxeko atletismoko alebin nesken taldea, Gipuzkoako hirugarren

Landaberri ikastetxeko alebin neskek hirugarren postua eskuratu dute Gipuzkoako txapelketan. Donostiako Anoeta miniestadioan ederki aritu ziren gaztetxoak, pasa den asteburuan. Dena den, emaitza baino garrantzitsuagoa da gaztetxoek kirola -atletismoa, kasu honetan- egiten gozatzea; hori da entrenatzaile eta LOKEko arduradunen helburu nagusia.



Ostadar SKTko errendimendu kadeteak lauko finalera sailkatu dira hirugarren urtez jarraian

Denboraldiak joan eta etorri dira, belaunaldiak ere aldatu dira, baina errendimendu kadeteko nesken taldeak ez du haren maila apur bat ere jaitsi. Horren erakusgarri da lortu berri duen balentria: Gipuzkoako txapelketan izateko lau hautagaietako bat da, hirugarren denboraldiz segidan. Lauko finalari ekingo dio igande honetan, Bidebieta kiroldegian, 10:00etan. Iraugirekin neurtuko ditu indarrak. Irabaziz gero, maiatzaren 1ean litzateke finala, toki eta ordu berean. Easo eta Askatuak dira beste bi taldeak.

JUDO.-

Esteban Martinez, Espainiakora

Bi infantil Euskadiko txapelketan ariko dira igandean

Asteburu historikoa izan zen pasatakoa LOKEren judo alorarentzat. Sortu zenetik bigarren aldiz, judoka senior bat Espainiako txapelketako azken fasera sailkatu da. Beñat Elizalde ireki zuen bidea 2009an, eta Esteban Martinezek eman du hurrengo urratsa. Hilaren 30ean ariko da, Madril.



Sektorean zilarrezko domina kolokatu zuen Esteban Martinezek (ezkerrean). G.ARISTEGI

TXINTXARRI

Gasteizen jokaturako iparraldeko sektorean politzikoratu zuen Esteban Martinezek Espainiako txapelketako azken fasean aritzeko txartela. Bi borrokaldi irabazita, finalean sartu eta zilarrezko domina kolokatu zuen. "Finalean ederki aritu zen Esteban, nahiz eta ez irabazi. Historikoa izan da lortutakoa; sortu ginetik bigarren aldia da judoka senior bat txapelketa horretara sailkatzen dena", zehazten du Gorka Aristegi entrenatzaileak. Duela zazpi urte atzera ireki zuen bide hori Beñat Elizalde. Martinez hilaren 30ean ariko da, larunbatez, Madril.

Martinezekin batera, Gasteizko Arriaga kiroldegiko tatarian aritu ziren Asier Sagasti eta Josu Olmos. Lehenengoak ezker sorbaldan min hartu zuen eta ezin izan zuen sailkatu finalera. Brontzezko domina

eskuratu zuen, hala ere. Bigarrentzat, berriz, larunbatekoa ez zen izan "egunik onena", Aristegik dioenez. Hiru borrokaldirik hiru galdu zituen.

Infantilen Euskadikoa, etzi

Martin Sebastian eta Lucas Morales infantilek Euskadiko txapelketa jokatu dute etzi, Bilbon. Sasoi bikaina ari dira burutzen; Gipuzkoako lehenengo eta bigarren izan dira, hurrenez hurren. "Denboraldi hasieran ez nuen uste horren ongi ariko zirenik, lehenengo urtekoak baitira biak. Orain arte erakutsi duten maila mantenduz gero, dominak kolokatzeko aukerak eduki ditzakete Bilbon, zergatik ez?", nabarmentzen du Aristegik.

Ander Garrido eta Yeray Mendibe kadeteak ere lehiatuko dira asteburuan, Andorran. Hitzordu oso garrantzitsu bat edukiko du Garridok berak,

hemendik bi astera: kategoria horretako Espainiako txapelketan lehiatuko da, Madril. Saikapena modu ezin hobean lortu zuen: txapeldun izan zen Euskadikoan, joan den astean.

Junior kategoriako judoek ezin izan dute sailkatu Espainiakorako. Atarian geratu zen Fermin Balda; iparraldeko sektorean brontzezko domina jantzi zuen, otsaila bukaeran.

"Oso pozik gaude"

Gorka Aristegi entrenatzaileak dio "zorte ikaragarria" daukala LOKE: "Beste klub askok ez bezala, kategoria denetan ditugu judokak lehiatzen. Lan gogorra eskatzen du horrek, asteburu ia osoa igarotzen baitugu txapelketaz txapelketa, baina merezi du ahalegin hori egiteak, inolako zalantzarik gabe; oso pozik gaude guztiak egiten ari diren denboraldiarekin, hasi alebinetatik eta seniorretaraino".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 23

Michelin, 11:30ean

Ostadar SKT - Lagun Onak CD
Infantilen Ohorezko maila, txapeldunen fasea, 10. jardunaldia.

Michelin, 13:00etan

Ostadar SKT - Billabona KE
Kadeteen 1go maila, kopa, 13. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Hernani CD
Jubenilen Ohorezko maila, 27. jardunaldia.

Martutene, Donostia, 15:45ean

Martutene KE - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila, 30. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Alle Punta FK
Erregionalen 1go maila, kopa, 15. jardunaldia.

Igandea 24

Herrera, Donostia, 10:00etan

Asoleus CF - Texas Lasartearra
Erregionalen 1go maila, kopa, 15. jardunaldia.

Usabal, Tolosa, 12:00etan

Tolosa CF - Ostadar SKT
Emakumezkoen lurralde maila, igoera fasea, 15. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 22

Herrikoa pilotalekua, Bergara, 22:00etan

Merino I - Arteaga II
Promozioko eskuz banakako txapelketa, final laurdenak.

Larunbata 23

Michelin pilotalekua, 16:00etatik aurrera

Solano (Intza) - Zabala (Intxurre)
Udaberriko lau t'erdikoa, 3. jard.

Artetxe (Intza) - Alberdi (Intxurre)
Udaberriko lau t'erdikoa, 3. jard.

Intza KE - Azkoitia

2. urteko alebinak, Gipuzkoakoa.

ERRUGBIA

Larunbata 23

Asti, Zarautz, 11:00etan

Lavie-ZRT Beltzak - Bera Bera
Seniorren Euskal Liga.

Igandea 24

El Amaro, Burgos, 12:30ean

UBU - Babyauto Zarautz
Ohorezko B maila, igoera fasea, final laurdenak, joaneko partidua.

IGERIKETA

Larunbata 23

Paco Yoldi kiroldegia, Donostia, 8:30ean

Buruntzaldea IKTKo igerilariak GIF Saria jokatu dute.

Agorrosin kiroldegia, Bergara, 9:00etan

Buruntzaldea IKTKo alebinak teknifikazio saioak egingo dituzte.

Hernaniko kiroldegia, 15:00etan

Buruntzaldea IKTKo igerilariak
Udaberriko ligako 1go jardunaldia jokatu dute.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 22

Herriko areto-futbol txapelketa,
Kantsolazio Liga

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Viña - Urdaneta HK

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Txoko - Reformas Lagunak

Uzturpe frontoia, Tolosa, 20:30ean

lurre Taberna - ISU Leioak
Gipuzkoako 1go maila, 23. jard.

Larunbata 23

Herriko areto-futbol txapelketa,
Txapeldunen fasea (itzuliko partidak)

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Trumoi - TSST

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

El Punto - Kattagorri Insausti

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Izkiña - Ilargi

Michelingo kirol-gunea

Indaux - Txindoki

Udal Kiroldegia, 9:45ean

Lasarte Kafe Bar - Laskorain
Jubenilen maila, 21. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Lagun Onak FS
3. Nazional maila, 23. jardunaldia.

SASKIBALOA

Larunbata 23

Benta Berri, Donostia, 20:00etan

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT
3. probintzialeko senior mutilak,
bigarren fasea, 13. jardunaldia.

Igandea 24

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Easo Loyola
Partizipazioko junior neskek,
bigarren fasea, 9. jardunaldia.

— Agenda —

Ostirala 22, 19:30ean, Ama Brigitarren Komentua



Bihotzera iristeko ahotsak

X. Musika Topaketen barruan, Aqua Lauda abesbatzak kontzertua eskainiko du. Ahots zurien abesbatza da eta berezitasun bezala, kontratenore bat du kide. Doinu sakro eta profanoak nahastuko dituzte egitarauan, erdi aroko piezetatik hasita garaikideak diren moldaketetaraino. Javier Bustoren zuzendaritzarenpean arituko dira. Montse Latorre herritarrek, Mario Hernandezek eta Pili Anuncibayk solista lanak egingo dituzte.

novato' filma eskainiko dute. Ostein solaldia izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 23, 20:00etan

Herritarrek 'Celebration' proiektio digitalaz gozatu ahalko dute. Lan hori John Williams konpositorearen ibilbidean dago oinarritua -Star Wars filmeko soinubandaren egilea da, besteak beste-. Sarrerek 7,50 edo 9,00 euro balio dute.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Apirila amaiera arte

Loreto Otaegiren margo eta egurrezko lanak ikusgai.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Apirilaren 24ra arte, astelehentik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara

TtakuN KEko aisia eta gaztea sailek 25 urte hauetan antolatutako hainbat ekintza eta egitasmo, hala nola, Amaraun Kluba, Gazte Kluba, kanpaldi edo Udako Txokoetako argazkiak ikusgai izango dira.

Dantzaren Eguna

OKENDO PLAZA

Ostirala 29, 20:00etan

Dantzaren egunean, dantza topaketa bereziaz gozatu ahalko da.

Liburu aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 29, 19:30ean

Ludi Cuesta herritarrek jendartean aurkeztuko du 'Solo una voz' poema-liburua.

Lasarte-Oria

Earra! Bertso eskola 25. Urteurrena

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 22, 22:30ean

Lasarte-Oriako Earra! eta Gabiriko bertso eskolen arteko 'Bertsotruk' desafioa egingo da.

XIRIMIRI ELKARTEA

Larunbata 23

Lasarte-Oriako Earra! Bertso eskolako ikasle eta ikasle ohien bazkaria ospatuko da.

FURIA BELTZA TABERNA

Igandea 24, 19:00etan

'Ez da kasualitatea' bertso emanaldi

musikatuaz gozatu ahalko da. Oihana Iguaran, Miren Amuritz, Alaia Martin eta Ane Labaka herritarra izango dira kantuan.

Amaia Agirrek gai jartzaile lanak egingo ditu. Ixak Arruti gitarra jolea eta Eneko Sierra saxofoi-jotzailea izango dira saioa musikaz girotuko dute.

Udaltop

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 22, 9:00etatik 13:30era

Udaltop Udaletako Euskara zerbitzuen Topaketak aurten ere Euskal Herriko euskara zerbitzuetako kideak eta euskara adituak bilduko ditu Lasarte-Orian. Aurtengo gaia, 'Kirola D eremuan, noizko? Nork eta zer egin genezake

gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?' da.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 24, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'Kung Fu Panda' filma proiektatuko dute. 3Dn ikusi ahalko da. Sarrera, 4,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 24, 19:30ean

Helduentzako zinema atalean, 'Cien años de perdón' filma proiektatuko dute. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 29, 22:00etan

Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'El

— Herritarren txokoa —

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, apirilaren 25ean, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean apirilaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Udaberri Festako marrazki erakusketa

Lasarte-Oriako Merkatarien elkarte den Aterpeak, iazko Udaberri Festan antolatu zen marrazki erakusketaren arrakasta ikusita, egitasmoa berriro antolatzea erabaki du.

Erakusketako gaia Lasarte-Oriaren 30. urteurrena izango da. Hori dela eta, herriko txoko kuttunena marraztu beharko dute.

3 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendutako erakusketa da. Zumaburu liburudendan edota Kattagorri jolasdendan eskuratu ahal izango dute marrazkia egiteko kartoi mehea.

Apirilaren 30a bitartean kartoia jaso zuten leku berean aurkeztu beharko dira marrazkiak.

Aterpeak, bere aldetik, maiatzaren 9tik 13ra jarriko ditu ikusgai bere saltokietan. Egun horietan, haurrek haien marrazkiak bilatu beharko dituzte Lasarte-Oriako dendetan. Aurkituz gero, oparitxoa jasoko dute.

— Hemeroteka —

Duela 1213 ale


Ostadar kirol fundazioaren 15. urteurrenaren berri eman zuen TXINTXARRI aldizkariak 1998ko apirilaren 30ean. Maiatzaren 11tik 15era hitzaldiak eta maiatzaren 16an areto-futbol txapelketako finala, saskibalo partida eta zikiro-afaria antolatu zituen elkar-teak.

Artikulu an

aipatzen denez, 1983an kirola jendea harremanetan jartzeko bitartekotzat zuten egitasmoaren inguruan batu ziren kideek.

1983tik 1998era elkartearen bilakaerari buruzko laburpentxo bat egiten zen. Hala nola, 15 urte horietan areto-futboleko txapelketa eta 1985tik saskibaloiko txapelketa antolatzen zituela, 1994ean txirindularitza lehen porra egin zuela, urte berean Lasarte-Oria Bai! txarteleko sustatzaile izan zela, 1996an lehen herri krosa antolatu zuela, etb.

Honetaz gain, auzolana bere oinarrietako bat izaki, besteak beste, lan-gabeziak eragiten zuen bazterketa sozialari aurre egiteko truke sistema martxan jarriko zela azpimarratzen da.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Allerrun laugarren bide-adarra egingo da

Bi hilabete eta erdiko lanak izango dira

Gipuzkoako Foru Aldundiak Allerruko zerbitzugunean bide-adar berria egingo du. Egun N-1 errepidetik zuzenean sartzeko bidea du eta ibilgailu ugari bide hori erabiltzen dute. Baina arrisku egoera asko sortzen dira.

Egun Lasarte-Oriako N-1 errepideko hegoaldeko lotuneak hiru bide-adar ditu Donostiaruntz edo Iparraldera doazen bi eta goiko pasabidetik hegoalderantz Andoaingo noranzkoan sartzeko.

Andoainetik datozen ibilgailuetako askok Oria auzoan errepidea utzi eta Allerruko gasolindegia zeharkatzen dute goiko pasabidera igotzeko.

Aldundiak jakitera eman duenez, jokaera hori legez kanpoko izateaz gain oso

arriskutsua da. "Gasolindegitik pasatzean arrisku egoerak sortzen dira horniketa gunean, eta horrek keza eta salaketa ugari eragiten ditu".

Arazoari irtenbidea emateko, zuzeneko bide-adar bat egingo da, N-1 errepidetik Allerruko lotunera iritsiko dena, gasolindegitik igaro gabe.

Lanak 405.084 euroko aurrekontua izango dute, eta epea bi hilabete eta erdiko izango da.



Ibilgailuak gasolindegitik pasabidera ez igarotzeko, bide-adar berria egingo da.



Errenta Aitorpena Euskaraz Batu eta Gehitu Etekin


Apirilaren 11tik Ekainaren 25era. Euskara Lehenetsi!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>

f Albisteak elkarbanatu eta oparia eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil

Udal Euskara Batzordeak



Birziklatzearen labirintoa Izan zaitez gure taldekidea

Apirilaren 21etik maiatzaren 4ra
Easo Plazan, Donostia

ORDUTEGIA

Lanegunetan:

10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

Larunbat eta igandetan:

10:30 - 14:00 / 17:00 - 20:00

